

### **ZUBIKARAI'tar Augustin**

- Bizkai-Batzarkidea
- EGUNA'ren sortzaillea
- Izparlaria
- Ipuinlaria
- Eleberrigillea
- Antzerkilaria...

**EUSKALDUNA**

# ELEIZEA

## BIZKAIA'N BATZARREAN

- Bide luzea egin da: ikusi ta aztertu.
- Orain ekintza-aldia.
- Gero erabagiak artzen bero-bero.
- Erakundeak indartu bear.

- Taldeen lanari adorea emon.
- Parroki txikietan oztasuna.
- Euskereaz arduratuta.
- Euskal-arazoa ez lar bizi.

Gure irakurle guztiak jakitun izango dira, zalantza barik, Bizkai'ko Eleizea batzarrean dagoala aspaldion. Batzar onek bide luzea egin dau eta ekiñaldi sakon eta zabal bi bete dira: IKUSTEA'ren ekiñaldia eta AZTERTZEA'rena. Gure erritar kristiñauak arazoak sakon eta zabal agertu ta aztertu dabez, erantzunetan ikusi daiken lez.

\* \* \*

Oraintxe sartzen da Batzar aundi au, 20.000 bizkaitarrek asi eta geienak jarraitzen daben ekiñaldi eder au, bere irugarren saillera, EKINTZA-ALDI'ra.

Aldi onetan bete bear dan zeregiña auxe: Zer lortu gura dogun argi ikusi, ori lortzeko zer egin bear dan pentsau eta nok edo nortzuk bete bear daben adierazo.

Irugarren ekiñaldia be garrantzi aundikoa da ba, egin dogun lan sakon-zabalak izan bear dauan besteko ondorena izatea nai ba'dogu.

\* \* \*

Eta gero, datorren ikasturtearen asieratik, eskintzen diran erabagi-gaiak batzarkide guztien artean eta autarkien bidez onartu bearko dira.

Taldeetan ekin dabenak izango dabe arlo onetan lanik biziena, baiña beste kristiñau Bizkai'tar guztiak be eskatuko jake euren eritxia eta al daben neurrian kideko izatea.

Bizkai'ko Eleizan diran erakundeak ez dabe txarto-txarto jokatu, baiña Batzar Nagusi onen guraria da erakunde orreik oso-tzea ta sendotzea: Be-maillan asita, fededunak kideko izan daitezcan, parroketako, eskualdeetako eta ordekaritza-aldeetako batzordeetan kideko izanda.

Eta goi-maillan be, lendik diran erakundeak sendotu eta barriak sortu bear-dira, esaterako Artzain-Lanerako Batzordea. Gai bakoitxak eskatzen dauan lana bideratzeko be-mailla orretan talde batzuk bearko dira.

\* \* \*

Baiña beti izan bearko da ardura aundi bat, erakundeak utsak izan ez daitezcan, be-maillako taldeetan egiten dan lana indartzeko.

Izan be, fedea benetan bizi gura dauanak, talde txikietako alkar-izketa eta fede-banatzea bear-bearrekoa dau, orrelan Eleiza osoa bizia ta alkar-banatua izan daiten.

\* \* \*

Parroki txikiak, batez be nekazaritza-girokoak, geroago ta egoera larriagoan dagoz gaur: Sarritan abaderik ez dauke, laikoak arazoetara sartzea, eleiz-giroan beintzat, ez da asko lortu, baserrietako eleizak sarritan otz eta uts ikusten doguz.

Eta parroki txiki onetan izan dau Eleiz-Batzar onek ikuturik gitxien. Azkeneko ekiñaldi onetan orretan lan aundia egin bearko da, gure baserriak azkenengo trena galdu ez dagien. Ez daitela Eleiz-Batzar au uritarrena bakarrik izan.

\* \* \*

Euskereari dagokion lekua emoteko alegin aundia egin da eta egiten da Eleiz-ekintza onetan, Bizkai'ko fededunak geienak erdeldunak izan arren.

Ekintza onetara oso-osoan sartuta dagozenak alegiña egiten dabe euskerea ikasten, eta askok jakin be ba-dakie.

Agiri guztiak euskera ta erdera aterateko alegin aundia egin da eta orretan aldizkari onetan irakurle ta idazle diran askok emon dabe euren laguntza.

Erriak eskatu eban lez, Bizkai'ko euskerea erabilli da.

\* \* \*

Erantzunetan Euskalerrriaren arazoa agertzen da eta sarritan agertu be, bai gogorkeriaren gaian, baita jakintzaren ekintzan eta beste askotan, baiña ez dogu ikusten arazo au bere lekuan ezarteko bear dan besteko alegiña.

Ekintza sakon eta zabala da ba Bizkai'ko Eleizbarrutiaren Batzar Nagusia eta ondorenak aundiak edo txikerrak ille asko barru ikusi al izango dira.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

# AUTESKUNDEA BARRIRO

## NOREN ARAZOA

España'tarrak, agintari gizarte-zaleak edo sozialistak, euren agintaritari-epea bete baiño lenago auteskundera dei egiten dabe. Bagillaren 22'an izango da auteskunde-egun ori.

Berez geure-geurea izan bear ez leuken arazoa da, baiña kondairako okerkeriak orra sartu gaitue euskaldunok eta ortxe egin bear, al dan neurrian, geure ekiñaldia.

Euren arazoa da, baiña gugan ain ikutu aundia daukan ezkerok, geuk be sartu egin bear arlo orretara eta autarkien kutxetara urreratu, orrelan legeak egiten diran lekuan geure ordezkariak euki eta geure errigintza-jokoa jokatzeko.

\* \* \*

## ALDARRIAK

Gogaikarriak izaten dira auteskundearen zabalkunde-aldian entzuten diran berbaldiak, ez bakarrik zaratatsuak diralako, egun orreitan eskintzen diran aurrerapenak gero bete barik geratzen diralako be bai.

Ez da eltzen egun orreitan odola errekarra, ez da izaten iñor ilterik, baiña ikusten dan giroa be ez da izaten bake-giroa, aldarrri ta zarata-giroa baiño eta ori alde guztietatik: Ikus-irratian, izparringietan, irratietan, aldizkarietan, kaleetan eta plazetan eta non ez?

\* \* \*

## ALKARREN AURKA

Zabalkunde orretan gauzarik mingarriena alderdi politikurik geienak erabilten daben jokabidea izaten da: Norbera beti da ona eta besteak beti dira txarrak.

Norberaren jokabideak eta asmo onak agertzea gauza ederra litzake, baiña besteen aurka berba egitea galazota egon bear leuken gauzea dala esan lei, salerosketako zabalkundeetan orrelan izaten da eta politikariak be ori bete bear leukee. Norberaren gauzen zabalkunde egin baiña beste iñor iraindu barik.

## EUZKADI NORA?

Ai gure Euzkadi! Izena bera be mingarri biurtu jaku, batez be Naparroa ta Iparraldea izen orretan sartu barik berba egiten dalako! Erria gara, erri bat, baiña ezin eldu erri bat lez agertzera: Mugak, jabetzak eta ez dakik nik zer, ezarten dauan "txarraren indarrak" gure alkartasunari eragozpenak ipinteko!

Eta egunean eguneko burrukea egin bear, daukaguzan idiakaz daukagun soloa landu bear.

Begiratu dagigun ba, geure erriaren barru-barrura eta alderdi politikurik egokienari indarra emon geure autarkiaz. Zein alderdiri? Ori irakurle bakoitzaren erantzuna da, guk geurea emonda daukagu, naizta barruko goraberak artegatasuna sortu.


Baiña, au bai, arazoa argi ikusten ez dalako, ez geratu autarkia emon barik, arerioari indarra emotea litzake ori.

\* \* \*

## ARDURATU

Erriaren egoera larri onetan euskaldun batek be ez dauko arazo au alboan izteko eskubiderik. Guztiok arduratu bear gara autarkia emoteko eta geure inguruan egokiro zabalkunde egitoko. Eta ez bakarrik euskaldun jaio garanak, euskaldun egiñak izan diranak be erri-arazoa ikusten eta bideratzen alegiña egin bear dabe, ez albokoari laguntzeko, geurea indartzeko baiño.

Sartu gaitzean ba adoretzu eta gogotsu ekiñaldi onetara, barruko eta kanpoko bakea galdu barik, baiña arazo biziari bear dan bizitasunaz erantzuten jakola.



## AUGUSTIN ZUBIKARAI'RI OMENA

### ALDUNDIAN

Jorrail onen 18'an, Bizkai'ko Aldundegian, ekiñaldi eder eta atsegingarria izan genduan: Zubikarai'tar Augustin euskalzaleari omenaldia.

Asko poztu gintzazan orain urte batzuk iñoren eskuetara jausita ikusi izan dogu gure etxe eder orretan euskal-giro ain bizia ikusteagaz, ederra giroa, geure-geureak giro orretan ikusi genduzan gizonak eta atsegingarriak aurrean egin euskuezan dantza-aldi bizkor eta eguneratuak.

### MAIA

Areto ederrean eta aurreko maian gizon maitagarriak agiri ziran: Zubikarai omendua erdi-erdian, Aldun Nagusia ta Bizkai-Batzarren Burua, Uribe-Etxebarria jakintzako aldun maitagarria eta berba-aldi egokia, zeatza eta txalogarria emon eban Erkiaga adiskidea.

Eta inguruan Ikusirratiko langilleak, Erri-Irratikoak, izparlariak eta abar.

Txistulariak, omenari erri-kutsua ugaritzeko mai-inguruan.

### BEIAN

Omenaldian ondoan neukan batek auxe esaten eustan: Jente zeia ikusten da emen, geure antzeko jentea.

Begiratu egizu ondo eta ikusi nortzuk dagozan, esan neutsan, gizon aundi eta ospetsu asko daukazu: Aldunak,

Zuzendari Orokorrak, parlamentariak, Alderdi politikuetan gorengo maillan dagozenak... Baiña errazoia daukazu, jente zeia dira, geure antzekoak, eta ez beste aldi batzutan ikusten ziran lako gizon aundiak edo beintzat euren burua aundizat eta garrantzitsutzat eukenak.

Areto aundia bete-beterik egoan eta guztiak pozez eta atsegin-giroan.

### AUGUSTIN

Baiña gure begiak beti joten eben Augustin beragana. Barru-bero ikusten zan. Berotasun ori aurpegiko leio bietatik bizi agertzen jakola, pozik baiña "nok ekarri nau ona" esaten lez edo "au euskalzale guztiak zor jaken gauzea da".

Esker ona agertzen eban, baiña, berak esan eban lez, lan aundi baten eta askoren artean egiten dan lanaren ezaugarri lez.

### BERTSOETAN: AZPILLAGA-PAULIN

Ezin alboratu olako giroan geurea dogun bertsolaritza.

Azpillaga'k bere ekiñaldi ederra egin eban eta azkenerrantza, Augustin berak eskatuta, Solozabal'dar Paulin'en olerkari-ekiñaldia.

Azpillaga'ren bertsoak ez daukaguz eskuetan, baiña bai Paulin'en olerkiak, one emen:

Lenen agurra, zuri, euskera,  
Euskaldunen arimla  
Millaak urtetan euskal gizonak  
Sortu eben izkuntzia;  
gure gizonak jatorrak ziran  
alan euren izkeria,  
gizon ta izkuntza bat egin ziran  
Sorturik Euskalerrria.

Mendi artean jalo zan Itza  
Arri ta garo usalan,  
gure arbaso, erraldol arek  
Zer euken euren mñian;  
Ain jakintsua dan izkuntzea,  
Sortzeko baso erdlan,  
izarra egon argi egiten  
euzko mendil tontorrian.

Mutil koxkorak giñan aldian,  
Asi intzan izkuntz jorran,  
Solo ederra euskerarena  
Ire ametsen baillaran;  
Gure baserri aintzagarriak  
Txoriak kanta Kalolan,  
Enda zarraren abestia zan  
Euzko izkuntza solñuan.

Itxas aldetik eta menditik  
Artzen eban arnasia,  
Erriak berak erraletatik  
Eskelntako bizia;  
Larros orriak ituan Itzak  
Zuri, gorri lez orlela,  
Gaur-izatea, or, agertzen dok,  
euskera argi, garbia.

Ezin aspertu ta ezin egon  
Bultzaka maltasun dana,  
Burua legez blotza ere  
Mendi —zelai— lur bakana;  
Erleak legez miazkatu dok  
Euskera edertasuna,  
T'ezti blurtu Itzaren bidez  
Jakitunen arrimena.

PAULIN



**LENIZ'KO IBARRA**

Idaztitxu onen bidez, zerbait esan gura neuke Aran oneri buruz, bai lenagoko Edestia eta bai oraingoa, gogoratuz edo argituaz, zelako goraberak euki dauzan mendetan zear.

Idazti bat izango da, aintxineko egoerari buruz eta bigarrena oraingo egoerari buruz, orain zelako EGOERA bikaña dagoan bertan ikusiaz.

Oraingo EGOERA jakin-gura daukanentzat oso pozgarria da, txoko gitxi egongo diralako lan-kontuan, aurre-rapidean eta zoriontasunean obeto.

Ez geldi egonda, ez. Lana ugari eginda etorten da zoriontasuna.

**NUN DAGON ARAN AU**

Konterri au Gipuzkoa Errialdean dago. Bere mugak oneik dira:

Sortaldetik Oñate, Sartaldetik Aramaio, iparraldetik Udala eta Elorrio eta egoaldetik Arlaban eta Elgea mendiak.

Gatzagaiñetik S. Prudentzioaraño 25 Kim inguru dagoz, luzeran, eta zabaleran 10. Danera 250 Km<sup>2</sup> inguru dira bereak.

Ta bertan 55.000 bizilagun, gitxi-gorabera, bizi dira.

Leengo denboretatik onantz, ala-ta-be 1.946'tik ona, bertan dagozan iru erri, asko geitu dira, berrogei urte onetan, lanpostuak ugaritu diralako.

Dana izan da FAGOR sortu zan ezker.

Aran onetako erriak oneik dira Mondragon edo Arrasate 35.000 bizilagun eukiaz. Berau izan da beti Konterri onetako uri-burua.

Aretxabaleta 10.000 bizilagun inguru; Eskoriatza 6.000 bizilagun eta Gatzagain 2.500.

**DEBA ERREKEA**

Ibar onetako ZAIN aundia Deba errekea da. Beronek igaroten dau aldetik aldera Konterri au luzeran.

Arlabanen sortzen da ibai au eta Debaraño doa, danera 60 kim inguru luze.

Sortzen dan lekuan etxe bat dago BENTA-BERRI deritxona, eta onen teillatu batek bialtzen dauz urak Kantauriko itxaso aldera; eta beste aldeko teillatuak Medita-

rreneko Itxasora. Lenengo Zadorra ibaira eta gero onen bitartez Ebrora eta onek Meditarraneora.

ERREKA au beti izan da ondo aprobetxatua. Ondiño urte asko ez dala, orain aldakera aundiak daukoz-eta, LAROGETA BI Errota eta Argi-etxe eukazan. Neure ustez errekarik onduen aprobetxatua izango da.

Lenago bere urak garbi-garbiak ziran, baiña orain oso zikiñak, itxusiak eta arrisku aundikoak dira, bertan busti-aldiak artzeko.

**KONTERRI ONEN ASIERAKO EDESTIA**

Ez da erreza gure leenagoko EDESTIA zuzentzea. Aintxiñeko euskaldunak ez ziran idaz-zaleak. Euren bizi-modua zelakoa zan ez dauskue idatzita itzi Gizon ospetsu batzuk kendu ezker, ala-ta-be Lekaieak eta Abadeak bai, besteak ez ziran arduratzen idazte-kontuak.

Euren bizi modua naiago eben ZORI-ZALE eta GOI-ZALE.

Ibilkariak ziran.

Konterri onen lenengoko BARRIAK beratzigarren mendean agertzen jakuz.

Orduan be naiko gitxi.

Amargarren mendetik amalauarreneraiño borroka itzalak izan ziran, gelditu barik Oñaz'tarrak alde batetik eta Ganboa'tarrak beste aldetik.

Gudozte orregaitik, Aran au Araba eta Gipuzko-Errialde bitartean egoalako.

ZIRI edo ALTZARRI bat sartuta dagon bezela, talde batzutan egon zan Arabakoakin eta beste aldi batzuetan Gipuzkoarrakin.

Oñatiko Jaun bat, bere izena Pedro Belz de Guebara izan zan, Aran onetan agindu ebana, bere taldeko ONAZ'tarrak lagunduta Ganboa'tarren aurka. Bera Oñatiko zalako Mondrautarrak eta beste erriak ez eben gura Jaun orren menpean egotea.

Berreun urte inguruan esan geinke ez ebela bakerik euki aren menpetik urten arte.

Azkenean Pedro Belz de Guebararen Illoba baten gazte-denboran burruka oso gogorraren-ostean lortu eben euren askatasuna, nai ta kalte izugarriak izan Arrasate inguru guztian, urrengo idazti baten esango doten bezela.

ETXEBARRI'TAR ISIDOR

## EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA

### NAPARROA

#### “Lingua Navarrorum”

Oso urbil dogun “munduari” begiratuko dautsagu gaur: Euzkadi’ko sei “aizpen” artean “Aizpa Nagusia” dan Naparroari. Gaur-egun, zori txarrez, eta ango kazike españizaleen erruz, bere aizpetatik bereizia daukagu gura Aizpa Nagusia. Naparroa’ko kazikeek, ez dabe, iñolaz ere Naparroa’k bere burua euskaldun ikusterik nai. Badakite ba, Naparroa euskalduna dala oartzen bada, beren kazikiri guztia betirako amaitu yakela.

“Lingua Navarrorum”. Ezaguna dozu seguruaski, erdi-aro guzian Euskerari Lingua Navarrorum, “Naparren Izkuntza” esaten yakonla. Gaur tamalez, Euskera ia-ia illik dago gure Naparroa maitean. Orain dirala lau urte, ez ziran lau millera iristen Naparroa osoan euskeraz zekiten umeak. Naparroa’ko Aldundian euskal-irakasketaren arduradun zan Andereño legiztilariak esan zidan ori. Gaur euskeraz dakiten umeak gutxiago izango dira oraindik, Euskera, beera-eta-beera bait dijoa lurralde aietan.

Zer egin ote daikegu Naparroa euskalduntzeko? Gaur, erdera, “Lingua Guadalajariensium” da Naparroa’ko izkuntza. “Lingua Guadalajariensium” ori guadalajatararentzat utzita, nola eraman ote daikegu “Lingua Navarrorum” ostera bere Naparroa’ra?

Euskera zan antziña naparren poztasunik aundiena. Euskera aipatzen zuan Xabier’ko Frantzisko Doneak ere bere izaeraren adigarririk garrantzitsuena lez.

Jakiña da euskeraz otoiz egiñaz il zala Xabier, une artan arekin zegoan morroiak, berak zer zan ezin igarri izan eban, izkuntza batean mintzatu zala Xabier, esaten bait dauku. Eta morroi ark, sortaldeko izkuntzat eta, mixiolarien artean zebillelako, baita latiña ere, ezagutzen ebazan, Xabier’ek izkuntza aietako bat erabilli baleu, izkuntza ura zer zan kontuan erortzeko aiña.

Otsaillaren 3’ko “Euskerazaleen” egutegiak itz auker ematen euskuzan: “1544: Xabier’ko Frantzisko’k Koin-

bra’ko jesuitei: Malabar izkuntzaz ezin naz ulertu, euskeraz egin bearko dautset inditar onei”. Ta, nik, ori irakurri bezain laister, Xabier’en itzak berak aurkitzeko asmoa arneban.

Aukitu dodaz. Monumenta Historica Societatis Jesu’ren 67’garren liburuko 161 orrialdean dagoz.

Bi uts egiten dauz “Egutegiak” ematen daukun izparrak: a) Xabier’en eskutitza ez da Otsaillaren 27’koa, 15’eko baizik, eta b), ez da Koinbra’ko jesuitei idatzia, Erroma’koai baizik: Sociis in Roma degentibus: “Erroma’n bizi diran legunei”. Zentzua ere, orain ikusiko dozun lez, ez dago Egutegian oso zuzenki jasoa. Ona Xabier’en itzak:

“Mansillas’eko Frantzisko eta biok, Komorin Itxasmuturreko kristauen artean gaude. Kristauok asko dirala jakiñarazi nai dautsuet... Beraik dagozan itxasertz ontara iritxi nintzan bezain laister, Kristo Gure Jaunari-buruz eikeen jakiten saiatu nintzan; eta sinismenaren ataletaz eta kristau egin ostean jentillak ziranean baiño zer geiago zekiten galdetzen neutsenean, ez neban aiengandik au beste erantzunik jasotzen: kristauak zirala eta gure izkuntzik ulertzen ez ebelako, ez ebela gure legerik ezagutzen, ezta zer sinistu bear eben ere; eta aien jatorri-izkuntza malabarrera zalako eta nerea bizkaiera, berak ez bait zidaten ulertzen eta ezta nik ere beraiei (y como ellos no me entiendiesen ni yo a ellos, por ser su lengua natural malavar y mia bizcaina), aien arteko jakintsuenak bildu nebazan, eta aien eta gure izkuntza ezagutzen ebezan pertsonak billatu.

Ez zera arrituko Xabier’ek Malabar’en kristaua asko arkitu daulako, Xabier baiño leenago joan bait ziran Indi’ra Portugal’eko mixiolariak, eta auker baiño leenago Siri eta Kaldea’ko monofisitak. Esan ere esaten da Santo Tomas Apostolua izan zala Indi’ra Kristautasuna eraman ebana, baiña esakizun onek egiatzko edesti baiño geiago dirudi kondaira, leyenda. Bere izkuntza “bizkaiera” zala diñosku Xabier’ek, baiña jakiña da or duan euskerari, “bizcaino”, eta euskaldun danei “bizcainos” esaten yakela.

LATIEGI’TAR BIXENTE

## LAU URTEKO NEURE IBILLERAK

### EMENGO ALDERA

Gu iru lengusuok be etxera biurtzea zala jokabiderik burutsuena pentsaten asi giñan. Ta etxera idatzi genduan asmo ori jakin eragiten: prisa barik, baiña, etxera biurtu geintzean bideak zabaltzen asi eitezala.

Bereala izan genduan erantzuna: Segiduan etorteko.

Erantzun ori ikusita, gutzat gauzak ondo konpondu zituen ustean jarri giñan.

Gure itxaropena Ramon Sierra zan, Nire arreba Mertzede, aren etxeko neskamea zan aspalditik. Jaun au izan zan, Franco'ren aldekoak Donostia'n sartu ziranean, lenengo gobernadore zibilla. Ta arpegiz bere alkar ezagutzen genduan. Baten 1939'garren urtean Alpontso XIII'ren semeren baten ezkontzara-edo Erroma'ra joiala Biarritz'en egon giñan bera Sierra, Teodoro lengusua ta irurok. Jaun ari neukazan dirutxoak emoteko idatzi eusten etxekoak gero berak aren ordaiña emon eien, eta, iru edo lau libra esterlina emon neutsazan.

Jakiña, aldi aretan ez egoan beste konturik eta gudeaz eta politikeaz naibeste eztabaida egin genduan. Erexi batekoak ez giñana esan bearrik ez dago. Baiña adiskide lez jardun genduan.

Bere ustez, ona biurtzean, lau-bat illabete egingo genduzan atxillotuta.

Olan bada, etxera etorteko gaztigua artu genduan, orretarako paperak egiten asi giñan Baiona'ra joanda. Geunkazan agiriak emon eta geure gora-berak erarik onean esanda, emon euskuezan ona etorteko bear ziran garbitasunak ango konsuladuan.

Ta izentau genduan mugea igaro bear genduan eguna. Ez naz gomutaten zein egun zan, baiña 1936'ko urrilla zala bai. Aurregunez Etxedoia'ko guztiak agurtu genduzan eta nik, neure izenean arda apurra edan eien, libera batzuk laga be bai, ondarrutarrai.

Nire lengusuak azkenengo egunean lotara aurretik zuzendariari agur egitera joan ziran. Nik, ostera, ez neban joan nai izan. Azparren'go illeta a zala-ta izan genduanagaitik, ez nengoan berari itzik egiteko.

Gaur kasu bardiñean arkituko ba'nintz ez neuke ain txotxolo jokatuko.

Zubizarreta'tar Iñazio jauna bizirik badago, parka eskatzen dautsat lerro onein bitartez.

Bost etorri giñan ona Etxedoia'tik: Bilbotar erdaldun gazte bat, Landa abizeneko bizkaitar euskalduna ta iru lengusuok.

Aske giñala, atxillotuko ginduezan tokira gentozan, alanbearrak beartuta.

Endaia'ko zubia igaroten asi giñanean, une garrantzitsua gutzat, irribarrez alkarrei esaten geuntsan:

"Oindiño aske gara; nai ba'dogu atzera biurtu geintez".

Gero, erdia igaro genduan, barriz:

"Ez daukagu atzera egiterik; ez gara aske. Zek itxaroten ete dausku?"

Emendiko aldera igaro giñanean, ez geunkan iñor etxekorik zain. Baiña, aduanan gure paperak erakusten asi ta bi edo iru miñitura, Mertzede neure arreba ta Sierra jauna eldu ziran beribillez. Ta, iru lengusuon amak eta arrebak, an egozan laster.

Asi zan Sierra jauna zerbait egin naian; baiña itxurea zanez, ez eukan aldi bateko alik, influentziarik. Etxekoak geltokiko jatetxean apaltzeko baimena lortu euskun. Ta Irun'go Norte'ko geltokiko jatetxean apaldu genduan. Ori bere zerbait zan.

Apaldu ostean geltoki bertako Pequeña Velocidad'eko almazenera eroan ginduezan iru lengusuok. Prantzia'tik igaroten ziran gizonezko guztiak toki aretara eroaten zituen. Ara joan giñanean ondarrutar gazte bat arkitu genduan: Rementeria'tar Eduardo. Aurreko egunean igaro ei eban mugea.

Jende asko egoan almazenean. Jakiña, ez egoan nun etzin eta batzutan zutiñik ta bestetan bultoren baten gaiñean jarrita igaro genduan ze-edo-zelan gaba. Naikoa luzea izan zan.

Eguna argitu zanean lantzean-lantzean an agertzen ziran norbaiteri edo batzuei deituaz. Bat edo beste, bear bada, aske bere lagako eben, baiña geienak San Pedro de Cardena'ra eroateko izaten zala uste dot. Izen zerranda irakurtzen asten ziran guztian adi-adi egoten giñan geure izena noiz entzungo. Geuri bere deitu euskuen eta urten genduan. Italiar gudari ofizial bat zan gugaz egon nai ebana. Prantzia'ko barriak jakin nai zituan. Gugaz batera bere aurrera aurkeztu ziranen artean gaztelarrez baiño prantzesez obeto berba egiten eben batzuk egozan, ara lanera joandako espainiarren semeak kontixu. An gudarik ez izatera areik ez ziran ona etorriko. Gudaritza egitera etozala, bati baiño geiagori entzun neutsan, adin ori euken euki bere-ta.

Pozik esan eutsen italiarrari ekiena; ez dakit zein tokitan ez dakit zelako gudariak egozala, alako fabrika egoala ta abar. Guk ez genduan ezer esan. Iñoiz, prantzesen aurka marmarka jardunda nengoan, onegaitik edo aregaitik, baiña ari ezer esatea etoikeria iruditen jatan. Emengo gudeari iges eginda ara joan giñanean, antxe arkitu genduan babesa; ta ez geuntsen esker txarrez ordainduko.

Ezer ez egoan erri txiki baten egon giñala esan geuntsan. Baiña Itxasu erri txikia izan arren, ba-eukazan garrantzia euken gauzak: Baigorri'tik Canbo'ra joian bidezabaleko zubi ederra, tximist-indar zentrala ta Baiona'ra ura emoten eban putzua ba -egozan beintzat.

Eguerdi ostean bigarren deia euki genduan. Ordukoa andik kanpora urtetekoa zan. Amar-amabi lagun txapel oker biren ardurapean Norte'ko bultzian sartu ginduezan Cardena'ra eroateko. Geugaz batera zan Eduardo bere.

Eduardo au beti izan da umore onekoa; Ondarru'ko abertzale batzokian makiñabat barre eragindakoa zan bere antzerkiakaz. Bide guztian ez zan geratu abesti alai ta barre eragilleak abestuten. Jakiña, erderaz. Ta txapel okerrak apa zabalik euki zituan.

## GUDALDIA

Burgos'era eldu giñanean ia illuntzea zan eta ez egoan gu Cardeña'ra eroateko modurik. Orregaitik, gau a espetxean egingo genduala, txapel okerrak erabagi eben. Ta ara eroan ginduezan. Gu barruan sartu ta burdiñazko ate andia giltz andiakaz drin-dran itxi ebenean, barruak alako arrarea egin eustan. Orduantxe asi nintzan konturatzen ondo, nire egoerearen barri.

An barruan sartu giñanean, bereala, geure izen abizen eta zertzeladak artu euskuezan. Onetan geniarduan, gela ondolik espetxeratuak bana-banan igaroten asi ziran. Kontixu, axe zan patiotik barrura igaroteko tokia. Danak, gure ingurura eltzean, zeintzuk ete giñan begira igaroten ziran. Gu ez gengoan gudako kontuakaz oituta ta itxurabakoak iruditu jatazan gizon areik eta bada-ezpadakoak izango ziran susmoa egin. Gero, areik egozan tokira eroan ginduezan. Espetxe arek zati asko eukazan eta gu gengoan tokian berreun bat gizon egongo ziran. Ez naz gomutaten, baiña ziur, emongo euskuen aparta, apal ordua zandada.

Areto nagusira atea eukan gela bat emon euskuen lotarako ta antxe sartu giñan alkarregaz joan giñan aldra osoa. Eurenganako bildurra-edo ez dakit zelan esan bere geunkan danok eta atea itxita lo egin genduan. Baiña biamon goizean bereala asi giñan eurakaz konpianza artzen. Areik bere gu lakoak ziran. Bategaz eta besteagaz berbetan asi giñan, guk geure kontuak eta eurak eurenak esanaz.

Ez ginduezan asko poztu baten berbak. Berealako baten andik atarako ginduezan ustea geunkala esan geuntsan, gaua nun igaro ez geunkalako ara eroan ginduezalata. Irribarrez entzun euskuzan berbok. Baietz, besteak bere alantxe, egun bat edo birako ustean sartu zirala an, baiña illetan egozala ta urteteko itxaropen andi barik. Bera, zidarrezko diru batzuk arkitu eutsezelako sartu ebe-la, bi edo iru egun barru auzia argitu ta kanpora urteteko ustean; baiña urte erdi inguruan egoala, noiz arte jakin barik.

Gero patiora atara ginduezan besteakaz batera, beti lez kontixu. Sarri etorten ziran bati edo besteari deiez. Gu aurregun gabeen sartutakoak, estu-estu gengoan geure izenak noiz entzungo; ta alako baten, entzun genduzan goizeko amaikak inguruan.

Txapel oker bi geunkazan zain (ez aurregunekoak) eta kamioi baten sartuta eroan ginduezan Cardeña'ra. Burgos'tik ara amarren bat kilometroko bidea izango da ta bereala eldu giñan.

Antxiñako lekaide-etxea da San Pedro de Cardeña. Orduan, barrua, itxurabakoa egoan, millaka gizonen bizi lekua zandada.

Eguerdian eldu giñan bertara. Bazkaria artzera urteten egozan lerroz-lerro ta etxe kanpoko enparantza edo zabalera guztia bete eben. Tartean arpegi ezagunak ikusten genduzan, Donibane Loitzun'en ezagututakoak geienak; ta besoak jasota alkar agurtzen genduan. Emengo gizonak be narras edo zarpail ikusten ziran, geienak buru soill, bizar andia ta itxurabako jantziakaz. Gure ate-etan jotan dabeen narrasena baizen narras, itxurabako.

Ara eldu giñanean lenengo egin euskuena, ulea moztutea izan zan, utseko makifea buruan sartu ta gaztaia lez

laga euskuen burua, zuri-zuri. Gero manta bana emon eta besteen artera bialdu ginduezan. Guk iru lengusuok bageroan manta bakotxak, beste bien amak, nire ixiko Prantziska'k emonda. Aske laga nindueanean ezin atara izan neban eta an geratu zan. Egia esan, neure paltaz bere bai, bada, erea izaten ebanean, an Oyartzun'en egoan ondarrabitar bizar kentzaille bati ta eroan bere egin ebala uste dot. Baiña, aske geratu nintzan lenengo urtean Pasaia'n lan egin neban arren, ara joateko gogo gitxi neukan-manta bategaitik. Barriak ziran mantak, gutzat erositakoak, eta joango nintzala billa ixikori beti esaten neutsan, baiña Oyartzun'en geiago oiñik ez dot ipiñi. Auxe izan zan trabajadorietan egon nintzan azkenengo erria.

Ta biurto naitean Cardeña'z zerbait esaten.

Toki bakardadean dago lekaide etxe au; edo bestelan esanda, berau bakarrik dago lur zabalera andi baten. Andia da lekaide-etxea, areto asko ta andiak dakaz eta areto bakotxean lagundi edo konpañitan banatuta egoan jendea. Ez dakit zenbat, baiña millaka batzuk gengozala entzun neban. Brigadas Internazionalakoak bere bageroan bi milla-edo. Oneik gugandik berezita egoten ziran; eurakaz sekula ez giñan alkartu.

Gure lagundia bosgarrena zala uste dot; eliza aurreko enparantza edo zabal unera eukazan leioak eta gorenean egoan.

Lagundi bakotxak, edo obeto esanda, areto bakotxean agintari bat egoan, gu lako atxillotua. An denporarik geien eroanen artean konpontzen ziran zein buru izan eta danak nai izaten ebela uste dot. Gu ara joan giñanean (edo ez dakit andik laster jarri ete eben) Arzuaga abizeneko euskaldun mutil gazte gorputz andikoa zan zeregin edo ardurari ebana. Ta aurre samar ibiltzen zan ondarrutar bat be, Agirre'tar Federiko.

Lotarako, lastamarraga bana geunkan; ate ondoa zan barrien tokia. Denporeagaz tokiren bat ustuten ba'zan, barrurago sartzen giñan. Gu be lenengo gabeen, ate ondoan geratu giñan; baiña Agirre'k Eduardo ikusi ebanean, beragaz eroan eban nagusitxoen toki ondora.

Nik gau osoko loa egin neban eta ez neban ezer entzun, baiña lagunak esan eustenez, egundoko erromeria ipiñi ei eban Eduardo'k. An be abestietan ebillela, sarjentoak atrapau ei eban eta ixulduteko barik, geiago abestuteko agindu ei eutsan. ¡Besterik ez eban bear dana enbolikateko! Ta sarjentoa an egoala, ainbeste abestu ta bere izkirimiriakaz barre naikoa eragin ei eban.

Ez ginduezan txarto artzen. Aretoan gengoanean ez ziran gugaz sartzen. Egunean osteraren bat egiten ba'eban sarjentoak, aretxegaz amaitzen zan.

Jan kontuan osteraz ez gengoan ondo. Sabelkada andirik egiterik ez egoan an, Kanpoan, aske zan erriarentzat, jatekoa urri bazan, atxillotuentzat ezin askorik izan. Ez naz gomutaten gosariagaz. Emongo euskuen zerbait, kontixu. Eguerdian eta gabeen platerkada bat indiaba, patatea edo zana zala. Ta ondo egiña izan ezkerro, gaitzerdi. Eguerdikoa, jaten neban, baiña gabaz ikuturik bere ezin egin; ta orregaitik, gabeko jatekoa edo aparta artzera ez nintzan joaten Cardeña'n egon nintzan denpora guztian. Ba-geunkan geuk eroanda jakia ta gero be noizik bein bialtzen euskuen etxetiko. Beraz, geuretik artu ta zerbait jaten genduan gosea kentzeko.



Zer jan asko ez bageunkan be, ordez, bai zikiña nai-koa. Garbitasunik ezer ez zan egiten an; lastamarragak lurren egozan (olezkoa beia) eta orduan ez zan ezagutzen D. D. T. ta olakorik. Ta bereala zorriz bete giñan. Alperrekoa zalako-edo, ezer ez genduan egiten zikinkeriak garbitzeko. Ostera, atzerritarrak, au da Brigadas Internazionalakoak, alegintzen ziran zerbait. Eguraldi ederra zan baten, euren mantak enparantzara atara ta mamarrotxoak banan-banan atrapau ta atzozkolakaz ilten ikusi genduzana gomutaten naz.

Baiña zikinkeriarik andienak, komunak ziran; Burgos'ko espetxean ezagutu neban lenengo olako bat, gau bakar a bertan egin genduanean. Gela bat aiñako zabalunea, dana agirian, au da inguruan orma barik, dana loikeriz beteta, oiñak lurrean ipinteko bere tokirik ezin billatuta. Ta antxe, gizonak, alkarren onduan, gorputzeko premiñak egiten. Edateko ura nun egoan itandu neban eta toki aretara bialdu ninduen eta alantxe ikusi neban.

Cardeña'n itxurazkoak bere ba-egozan, komun barriak, baiña an ebillan jende pilloagaz ezin eitekezan garbi egon. Gaiñera gabaz ez eben lagaten komun areitara joaten eta len aitatu dogun Burgos'ko komunaren antzeko bategaz jendea baliatzen zan. Ain zuzen, Cardeñas'ko beste komun aretan be ura egoan, tubo baten jarioa, ta ur billa joatean ikusten genduan ikuskizun barregarria.

Baiña komunik ospetsuena Miranda'ko kanpo konzentraziñoikoak ziran. CISCAR izena jendeak ipiñi eutsan. CISCAR, orduko gudontzi bat zan, destrutora. Madrid'ko Gobernuakaz egon zala uste dot.

Miranda'ko CISCAR, astilleruetan itxasontziak egiteko egoten diran lako olezko armatoste andia zan, ibai gaiñera. Euriak labanduta egoan eta iñoiz bertatik uretara gizonak jausi izan zirala an esaten zan. Gitxienez amar

lagunek batera egin al izateko modukoa zan. Bakotxak alboak itxita eukazan baiña aurre ta atzeko aldeak agirian; atzea ibaia zan eta aurrea, bertara joiazanen igaro tokia. Ta nun utsik arkituko joaten giñan, bitartean ikuskizun politak ikusiaz. Emen be gabaz ez eben lagaten, arrisku andia egoan da.

Ta komunen kontuai amaia emon eta Cardeña'ko kontuai barriro ekin delogun.

Ara eldu ta bigarren edo irugarren egunera autormena edo deklaraziñoia egitera deitu euskuen. Gure esanak ingian artzen zituenak gu lakoak ziran, atxillotuak. Euretako bat irundarra zan, lendik arpegiz ezagutzen nebana, Donibane Loitzun'en ikusita-edo. Aretxen ingurura urretatu nintzan. Ta nire txanda eldu zanean:

—¿Cómo se llama?

—José María Echaburu Echaburu.

Ori entzutean begirakun txikia egin eustan eta barriro itauna.

—¿Natural?

—De Ondárroa, Vizcaya.

—Kontxo; euskalduna zara?— irribarrez esan eustan.

—Bai alantxe naz.

Ta berbetan asi giñan.

“Au ipiñiko dogu ta beste au ez, au olan obeto izango da ta beste ori olan” esan eustan. Autortza ona zelan egin ba-ekian eta bere gain laga neban.

Barriro deitu euskuen andik laster; Irun'en ikusi genduan italiar gudari ofiziala, ara be eldu zan. Gu beragana eldu giñanean, gizon pilloa aurrean ebala egoan itaunak egiten. Zein zan ikusi genduan bereala ezagutu genduan eta Irun'en egon giñala beragaz, esan geuntsan. Bera bere gomutau zan eta geiagoko barik urten genduan.

**KAMINAZPI**

**EUSKALERRIAN EUSKERAZ**

**EUSKERAZALEAK**  
**1985-86 IKASTAROA**

AMAZAZPIGARRENA

**BIZKAIERAZ**

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

**EGUNAK: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN**  
**EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN**

**ORDUAK: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN**

**ORDANA: 7.000 peseta.**

**IZENA EMOTeko-TOKIA: EUSKERAZALEAK**

COLON DE LARREATEGI, 14-2

BILBO.

URRUZTIZKIA 423.53.22

## BERNARDO GARRO, "OTXOLUA", OLERKARI

Itzultzaille ederra dogu Garro; Mundaka'n munduratu 1891-VIII-22'an-zan eta berton eta Bilbo-n bizirik, 1960-IX-14'an. Il aurreko urteetan sarri alkar ikusten genduan Gorbeia'ko mendi-bazterretan, oso menditar eta aize-zale zan-eta. Mendiaren, itxasoaren eta euskal izkuntzaren edertasunak ziran geinebat gure autugaiak, iñoiz amaitzen etziranak. Barruan daroaguna, aoz esaten. Musika-zale zan txistua ta gitarra jotzen ekiana.

Umetako griñak nekez oiltzen. Nik idatzi neban beiño-la: "Gure txikiak, kale ertzean edo-ta itxas-egian moltzoka jarrita atso zaar maiztuak zebiltzaten berriketa ta mormoxak entzutea eder zuan nunbait, itz-gaizto, irain eta aiñen-biraok sarri egozten omen zituzten abots-biurkera ta soin-dardarizu ta paristaz. Garrogaztea aieri belarriak itsatsita egoten omen zan, kukuka bezela; orduntxe jaso zizkigun ark zeinbat ipui, esaera, esaldi, supita, itz-zuur, aien ezpanetarik berak onturatu gabe irtenak ez gutxi. Benetako auzi ta korapilloak erabili zituen, ortaz, itzulpenak egiterakoan; kalean ikasu zuen aditza bere aldietan etzan, ziur asko, eskelan erderaz ikasten bat zerorrena beintzat. Euskeraz ta erderaz kalean entzun eta ikasia irabiotu oi zuen bere kautan eskolan aditzen zuenakin berdinduz. Orrela egin zuen, alegia, bere elebitza. Bietan ederki mintzatzen zan, baita idatzi ere" (*Euskal Literatura*, IV, 107 or.).

Euskal garra ekarren barne. Gazte zala gipuzkoar gazte batzukaz artu-emonan izan eban; baita euskal nobela batzuk irakurteko erea be. Añibarro'ren *Esku-Liburua* gogoko izan jakon, berak diñoskunez. Izparringi, astero-ko, bertso-paper eta olakoak, barriz, aspertu barik iruntsi oi ebazan. Era orretan, euskeraren zirkuntzulo guztiekin jabetu zan gaztetatik.

Emeretzi urtedun zer-edo-zerk eraginda Argentina'ra joan zan. Zetara? Lanera? dakiguna, zera da: zazpi urteren buruan Mundaka'ra biurtu zala barrero, "euskaldun internazionala" eginda, ain zuzen. Euskalerrri osoko euskaldunakin itz egiteko gai zala etorri jakun etxera. Bere idaztietan be orrela agertzen jaku.

Euskaltzaiña zan. Ikas-griñak aurrera garoaz sarri, ta Garro be sortzetiko min ezin eutsi orri jarraituz, ikasi ta ikasi ibili jakun. Eta idazteko lera? Noiz sortu jakon? Ortarako une berezi bat bear, akulu eragillea. Niretzat euki nebazan irakasleak izan ziran bide, ni idazle izateko.

Otxolua'ri —ezizen au atsegin jakon berari—, berak diñoskunez, Kirikiño'k emon eutson aukera, 1924'an. Batzaldi bat eratu eban onek, itz ezkerretik eskuira naiz eskuitik ezkerredera bardin irakurten diranen sariketa. Ibillia atzera egitea nunbait. Kirikiño ona gauzai guztiz emona zan, idazleak sortu ta bizkortzeko berebiziko gaiak zirala-ta.

Garro'k pilloa bialdu eban batzarrera, onakoekin osoturik. Ona bi: "An atzo arro zana, senarran esanaz orra oztzana"; "Aita, itxi aita"; orrelaxe eun esaldiraño, neurkera guztikoak. Baiña esaldi bi besterik bialdu ez ebazan and reiño batek irabazi eban leiaketa-saria, esaldi bata izan be konkurtsora azaldu ziranetatik luzeena izan zan, eta saria luzeenarentzat iragarrita egoan. Garro'k aipamena izan eban.

### EUSKAL IDAZLE

Gerorakoan, bere bizitzaldi guztian kontixu, Mundaka inguruko albistak eta barriak bialdu oi zituan astero Bilbo'ko "Euzkadi" egunerokora ta "Euzkerea" aldizkarira: agerkari bi oneitan azalduko ditu bere lanik geienak. Erriko izparrak beti etozan ipuin, jazoriko edo edesti-txatalen batekin amai lez txukun jantzita. Bertsoz be ainbat olerki ta alegitxo ditu biotan. Batzuk bere kabuz egiñak, eta beste batzuk ingelesetik-eta itzuliak.

Ona Garro'ren lanik beiñenak:

"Euzkeraea"-n: 1) *Voronoffkék be ezin duana* (192?); 2) *Bijar Dontiane-ra* (1929); 3) *Ortuzar'tar Errobusten Jauparija* (1929); *Nai dogune* (1930).

Gero itzulpen eder bat emon euskun, goralpen aundiak artua eta oraintsu be bigarrenez argitara emona: *Bertolda'ren maltzurkeri zurrak eta Bertoldin'en txaldankerin barregarriak* (Bilbao, 1932), Verdes Atxirika'tar Emeteri'ren irarkolan. 183 orrailde, azken iztegi luze bategaz. G. Cessare Della Croce italiarrak idatzia euskeraz, Itzulpen au, zatika, "Euzkadi"-n agertu zan lenengo.

"Euzkadi"-n: 1) *Pisti patariak* (1934); 2) *Kurutze eginda dagon lekuan* (1935); 3) *Abere dontsuak* (1936); 4) *Euskalerrriko abere-pizttak*; 5) *Abere Ipuñak, kontu-kontari esanak*; 6) Lapurditar J. Barbier'en "Ixtorio-Mixerio", ipuin sailla; 7) *Euskerazko Toki-izenak* (Euskera, 1956); 8) *Lau Ebanjelioak*, I. Goma'ren "Evangelijs concordados" euskeraz, oindiño ergitaldu barik.

Idazle ontzat jo eben bere garaikoak. Eta orrela da, izan be. "Ona-idazten dau Lizardi'k-, ezin polikiago ari dan idazle bat... Otxolua'ren idazki mamia, Mundaka'ko berriez ta zenbait goxoki geiagogz ornitua... Bizkaiera giartsu egokia oi derabil, ta itz-aukeratze ta are asmagintzan ere zolia da. Euskerak Bizkai aldean ditu idazle bikaiñenetakorik irudi zait" (*Itz-lauz*, 1934, 88 or.). Eta Orixe'k: "Lagun eta irakasle dut Otxolua... Euskalerriko guztiko idazleen artean txukunenetakoa".

**OLERKARI**

Olerkari legez be egin euskuzan bere saioak. Ba-daukaz poesi bitxi ariñak, berak bere jitez egiñak eta itzuliak, ingelesetik eta portugaleratik. Eta kanta letrak ugari; txistua, gitarrea eta pianua jotzen zitan Garro'k, eta kantatzeko bear ebezanai letrak berak jarten eutsezan. Onakoak edo:

"Kabeliña, kabeliña,  
kabeliña biotzkoa;  
nire maitetxuagana,  
nire maiteagana oa".

Noizik bein izan oi ebazan gitarrea artu, Iparragirre lez ibilli ta bertso barriak saldu ta kantatzeko tentaldiak. Baiña "ez gagoz Iparragirre'rena egiteko" esaten eban.

Nik onako lau sartu nituan neure "Milla Euskal Olerki Eder" liburuan, au da: "Neure ondotxutik nora?", "Lander maitemindua", "Itxaro, txoritxo" ta "Jai-li-li". Irakur egizu euroatik bigarrena, ots, "Lander maitemindua":

"Bidaztiak udan gerizra,  
ur baretan untiak aizea...  
Batze bere landerrak billatzen  
al dauan lez abaroa:  
mundu onetan gogait egiñik,  
jasan bai dot asko samiñik,  
ene biotz gaizoak zugana  
bultzez, maitea, naroa.  
Izan zakidaz abaro,  
geriza ta aize naro  
ene bizitza lander samin onetan.  
Itxi egidazu uste izaten  
izango gareala, egun baten,  
zu nire erregin,  
ni zure senarra ta jopu benetan.  
Oi, nire atsegin?"

Esan dogunez, zazpi bat urte erre ebazan Argentina'n, gazte zalarik. An ezagutuko zituan "gautxoak"; "Baneban nik izan" deritxon poesian beintzat alako baten erostak abesten ditu. Ona poema orren zatiño bat:

"Baneban nik izan,  
baneban;  
zaldi bat  
txikar-oriskea,  
zaala ta mizkea;  
"Petiso" edo dana-dala neritxon,  
iñoiz ezin geldirik egon,  
bizkorra zalako,  
ta lasterra, oi ez lako;  
"musuz-atze"-ren aldia emonda be  
lasterketa guztietan bera zan yabe.  
A zan zaldiyaren yayua,  
neure zaldi-txiko "bayua"!

AITA ONAINDIA

**ARPIDETZEKO TXARTELA**

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar .....

..... kalean (auzoan) ..... zenbakian

..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetzea ordaintzeko ..... diru-etxera (bankura) bialdu ordaintxartela, an daukadan ..... zenbakidun diru-kontura.

## ORAIN EUN URTE DURANGO'N

Auten Durango'n ospatu ziran LORE JOKOEN eun-garren urtea dala ta, ainbat jai eratu dira berton.

Baiña sarritan naiko aztuta euki doguzan LORE-JOKO edo EUSKAL JAI oneek zer ziran gogoratu daigun.

Joandako XIX gizaldian euskotarrok ainbat zoritxar izan genduan. Iparraldean, Prantzia'ko Iraultza, Erreboluziño ondoren, "Liberté, égalité, fraternité" dalakoak giza askatasunari gauza batzuetan garrantzi aundia emon arren, erri txikien askatasuna ez eban aintzat artzen.

Aurrerantzean Euskalerri txikiak nortasuna galduko eban. Olan Laburdi, Benaparroa ta Zuberoa'ko uriburu Bearné'ko Pabe, Pau egingo eben. Erri askotako euskaldunak erligiño ta euskereagaitik indarkeriz artuko ebezan. Burla ta ilketak ainbat egon ziran eta Landetara erbestera tuak be izan ziran. Ameriketaruntz igesi guraiña gazte joan ziran.

Orduantxe D'Abbadie'k errian ilteko oiñazetan egoan euskal nortasun-miña gaitzat arturik LORE-JOKOAK, EUSKAL-JAIAK antolatzen ditu, lenengoz 1853'an Urruñean.

Ego Euskalerrian apurka-apurka murriztutako Lege Zar eta eskubideak 1876'an guztiz galdu genduzan. Biotz minduta, lur jota, geratu ziran euskaldun on asko. Orduan, "Foruak galdu digutu baiña gure izkuntza ta oiturak ez daiguzan galdu" iñoen. Olan, Euskal zaletasun barri bat sortu zan.

Mugaz emendik aldean lenengo LORE-JOKOAK Eli-zondo'n ospatu ziran 1879'an eta Olerki Saria F. Arrese-Beitia Otxandio'ko "santugiña"ri emon eutsoen: "Euske-ra, gure Ama ez dagigun galdu" iñoen negarrez.

Iparraldean ainbat lekutan eta Egoaldean be toki askotan egin ziran euskal jaiak: Donostia, Gernika, Iyurreta, Durango'n... Durango'ko Lore Jokoak 1896'rako eratu ziran. Eliz-jaiak, abesbatzak, dantzak, pelota partiduak, olerki sariketak, beste gauza askoren artean.

Jaiok Uztailaren 24-26'an. egin ziran. P. P. Astarloa euskerazalearen irudia Ezkurdi enparantzan ipiñi eben eta bere gorasarrez Arrese-Beitia'k egindako olerkiari doiñua Zubiaurre musikariak ezarri ta abesbatzak kantauko eban "Kantata" ereserkia.

Neskato-mutikoek Astarloa'ren irudiaren inguruan dantzan egin eta lora txorta ta erifnotz koroia eskifii eutsoezan.

Meza Nagusiko sermoia "Bizkai'ko euskeraz" egiña eta abestiak jai onetarako Zubiaurre ber-berak egin eta zuzenduak izan ziran. Aurrekuak Santana plazan eta dantzak Ezkurdi'n egin ebezan.

Santzolari leiaketak, txistu ta danboliñarenak, palan-kari txapelketak, antzerkiak, gazte zarren dantzat, trebetasun-saioak, pitxar eroateak etab. Irabazleak ontzurrea, "amaseikoa" edo 200 erreal jasoten ebezan.

Andra Mari elizpean, guztiz ondo argituta gabaz, abesbatz-leiaketa; D'Abbadie euskalzalerari eskiñitako olerkirik onenagaitik, R. Artola'ri emon eutsoen saria. Beste sari batzuk Arrese Beitia ta J. I. Arana'ri. Arturo Campion'eri kondaira lan bategaitik.

Aundikiro ospatu ziran ikusten dogunez Durango'ko LORE-JOKOAK orain eun urte; alegiñak egin ebezan gure aintziñakoek euskeraren alde "ainbat" lan egiteko; orduko trebetasunak erakutsi euskal arimea sendotu naian; "euskaldun jarraitu gura dogu, iraun, bizi gura dogu" esanaz.

Arrese-Beitia eta euskaldun askok, ilzorian ikusten eben euskereari bizi barria emon eutsoen. Bakoitzak gure alegintxoak, gitxi baiña aldoguntxoak egiñaz gure inguruan guk be jarraitu daigun euskerea jasotzen, geroago ta indartsuagoa egiten.

YONE BELAUSTEGIGOITIA

### ORRIAK AIZEAN

Urteak be, joan doaz bai, orriak aizean, autsez beteriko bideetan biraka, narraz... Ba-doaz ta, ba-goaz elburura, bidean bizitzeak itzi dauskuzan amets banakaz.

Egindakoaren ordain sari, aztutasuna gelditzen yaku, zimeldurazko orbanpean ta, aintziñako lillura ondoriotasuna indarrrik barik, odolaren auldurapean.

Baña, ori, jakiñezko gauza bat, ziuerra da, leporaturiko egi garratz gordiñaren nai ta nai-ezko alan-bear, zama aztuna.

Ametsak, geien batez, amets utsak dirala badakigu, izatearen ta igarotzearen ustekizun bitxizko zugatzaren itzala.

MUNIATEGI'TAR SABIN

## EUSKAL IDAZLEEN BATZAR ONDOREN

Gure irakurle askok jakingo dabenez, Epalla'ren 15'ean bildu gintzazan Zornotza'n Euba'ko Ikastetxean, euskal idazle mordo bat Bizkai'ko euzkeraz idatziten dogunon tarteko Alkartea sortzeko asmoz eta, Alkartea onek izango dauan araudiak antolatu ondoren, onartzeko.

Esan dogunez, zaar eta gazte ainbat bildu bagintzazan baiña bizkaieraz ondo ta asko idatziten dabean ainbat idazleren utsa oartu genduban. Deituak ez ziralako izan ala ez ebelako nai etorri batzar orretara?

Benetan, zerbait ondasungarri izango ete da sortu dan Bizkai'ko Idazle-Alkartea au?

Badira ainbat urte, birritako aldiz bildu gintzazan ainbat euskal idazle Azpeiti'ko Loyola'n eta, ondoren Euzkadi'ko euzkal idazleen elkarte sortu ordurako H sartzen asiak ziranen tartean nastau barik geure euskalki txukunak guztiz aldendu ez eitezan.

Zer lortu zan Idazle-Alkartea orren bitartez erri-euzkera aldezteko? Guk dakigunez oso gitxi edo ezerez.

Batzar areitan izan ziran batzuk h ori eurentzako lez artu eben orretara idatziteko. Beste batzuk idatzitea laga egin eben eta, beste ainbatek h batzuk euren idazlanetan sartuaz eskua bustitzeko bildurraz edo jarraitu aixearan erara...

\* \* \*

Bai-ta gerotxuago sortu genduban Euskarazaintza, Euskal-Akademia, baiña, gure ustez pizka bat berandu, bada, ordurako "Real Akademia de la Lengua Vasca" edo Euskaltzaindia gu baiño zurrago egon ziran batonbatzuen bitartez, Euzko Jaurilaritzaren inguruan sakon sartuta aurkitzen zan eta, ederki sartu eben euren "euskara" trakatsa, gureak egindako Ikastola, ikaskuntzarako idazti ta euskal Irrati-Urrutikuskin'erarte. Beraz, naitabe gitxi zan Euskarazaintzak egin lukeana, laguntza barik eta aterik geienak sarratuta edo oztopo aundiz ingurututa aurkitzen diran lurralde onetan.

Ikusi doguzanak ikusita, zein siñiskera euki geinke sortu-barri dan Alkartea onetan, nairik zintzoenak eukiarren? Guztiz argi ez dodan ikusten Alkartea onen asiera, batzarrean zerbait esan neutsien lez.

\* \* \*

Aipatutako batzar orretan, orretarako izan zan geien bat eta, izentatuta egon zan batzordeak aurkeztu zituan araudiak aldatu bear baziran aldatuta eta onartzea izan zan eta, orretara egin zan. Araudi orreik baiña, erderakada ainbategaz eta euzkaldunok ainbeste sakabanatu gaituan H mordo ta guzti dira. Zergaitik H orreik bizkaieranak ez ba dira?

BIA (Bizkai Idazle Alkartea) sorturik dago eta garai-penik goralgarrienak lortzeaz benetan poztuko gintzakez, bizkaiera gure izkuntza zoragarriaren goralpena izango litzakelako, baiña, ori lortzen dan bitartean ez litzake egoki izango bizkaieraz idatziten dogun guztiok Bilbo'ko Euskerazaleak inguruan bildu, ZER onetan idatzi ta asteroko bera biurtutzen aleginduko ba'gintzakez?

Iñork ezin leike ukatu aspaldiko urteetan bazkun edo alkartea onek, Euskerazalea'k, euzkereagaitik egin daua eta egiten diarduan lan bikaiña. Orixe izango litzake, gure ustez, eginkizunik ederren bat, bizkaiera gaizkatzeko.

ALTUNA'TAR JOSU

### OI EUZKAGI

Euzkadiko belardietan bi milla gorroto bazkatzen; lau milla adarren puntetan bake-oyalak zarpazartzen.

Odolak ziztatzen ba doaz aize eroak adoirik edoi; burdin-eurien erasoaz pagotxen loretxoek erdoi.

Gurean, aspaldi izuak zoroetxetik igesi du t'egunabarraren mezuak izarren erio dakarsku.

Gora ta beera, aidean dabiltz bildurren ego baltzak ta ego biren bitartean gorrotoen moko zorrotzak.

Zer ete dau gure erriak? Dana dirudi zoro-aro. Agoni izpiz ditu begiak, nunnai etsipenak abaro.

### ILEZINAK

Zure lore-sortak zabaldu genduzanean atsonez bete zan, maite, gure abaroa eta bertako zokorik eskutuenean betikotu genduan geure gu bion geroa...

Bizi-bizi zan ene aragi gordinean zure abao aundituaren jarioa, zurru-zurru bait zan ezitia zure soinean maitasun gozoz 1er arteino nire agoa.

Argiñoak ereinez goldaska lerroetan, zein eder zan, maite, gure egunen joana, eguzki barriak noiz loretuko ete zai.

Gu gara agorezineko odolena ibai, itxaso barrietara ganezka doana. Ene maite, ilezinak gara gu benetan.

A. BIDAGUREN

## EDOZEGAITIK ASARRETZEN



Aita Rhaner guztiz ederretsia: Oraintsu neure buruaz artega sentitzen nintzan aldi bat igaro dot eta nire bizitzea neure jabetasun-barruan ezin neban artu.

Kanpotik be esan leiteke egoera onetan edo antzekoan aurkitzen nazela neure burua minberatuta ikusten dodanean, neure amesak galduta, danagaz naikotuta, neure buruaz erabakiren bat artu-bearrean. Olako egoeran kilokolo aurkitzen naz eta errez jausten naz goibera-aldietara.

\* \* \*

### URTENBIDE GAITXA

Ez dot errez ikusten neure arazo onen urtenbidea. Egoera orreri emoten dautzadan erantzuna, neure barrura sartu eta inguruko guztiakaz errez asarretzea izaten dalako.

Erabagiren bat artu bear dodanean, ifloren aolkuak artzea gaitx egiten jat eta neure gurasoai itauntzeko be ez dot izaten adorerik eta euren aurka be zalantza aundiak etorten jataz.

\* \* \*

### NORTASUN-BILLA

Emeretzi urte beteko dodaz laster eta oraindiño neure gurasoagandik ur asmatzen dot neure burua, baiña neure nortasunaren billa nabillela esan lei.

Egoera au ezin onartu dodalako neure isiltasunean sarritan negar be egiten dot, jokabide zuzen bat artzeko adore barik ikusten dodalako neure burua.

Orrelan neure burua ikusita danagaitik asarre aundiagoa sortzen da nire barruan eta neure inguruan bizi diranak ez nabela onartzen nazan lakoa uste izaten dot eta orregaitik neure barruan geroago ta geiago zarratzen naz. Ingurukoak olako zerbait esaten dabe. "Gaur gogoaldi txarra dauko, ezin leio barbarik egin".

\* \* \*

### ON-ALDIAK

Beste batzutan alderantziz jazoten jat, gogoaldi ona eukiten dot, mundu guztiagaz berba egiteko gogoia, maitekor agertzeko gauza ba'nitz lez.

Orduan nazan lakoa onartzen nabe.

Gizabideko jokabidea ete da au? Ez ete da oba izango olako egoera aldizkoetan mozorro bat ipiñi eta beti irribarez agertzea?

Nik neure berbak iruntziten jarraituko dot eta itxurazalearena egin.

\* \* \*

### BURU-JABETZA

Bear ba'da neure buruaren jabetza geiago bearko dot ala bide ohea izango ete da neure naigabea beste batzui agertzea, orrelan aldendu daiten?

Neure almenaren ziurtasuna bear neuke erasoan aurrean bakean biziteko, neure erantzunak egokiak izan daitezcan.

Nire bizitzearen eta itxaropenaren zati aundi bat galdu-azoten daust illuntasun onek. Nire bizitzako urduritasunak bakartadera aldendu eragiten daust.

Neure bizitza-tankerak euki lei egoera onen errua, neu konturatuta edo konturatu barik.

\* \* \*

### ADISKIDEAK BEAR

Neure jabetasun au lortzeko, etxetik eta gurasoakandik eta anai-arrebakandik urrindu be egingo nintzake, baiña oraindiño ez daukat erazko adiskiderik, ez daukot egoera onetan artu neiken lagunik.

Eta olako lagunak ba'neukoz be, nire jokabideagaz eurentzat ondamentia izango nintzake.

Urteak zear gogaitu-azoten dausten arazoak, ezin dodaz alboratu, arazo iraunkor biurtu jataz.

\* \* \*

### NASTEA TA KORAPILLOA

Eskutitz benetan nastetsua ta korapillotsua idazten dautzut, Aita, eta parkatu orregaitik.

Alegiñak egin dodaz zintzoro idazteko, baiña onelan-txe urten dau. Garrantzizkoa dana idaztea gaitx egiten jat, eta gaiñera dana idaztea larregi be izango litzake.

Biotzez agurtzen zaitut eta erantzuna emoten badaustazu, eskerrik beroenak emongo dautzudaz.

ULRIKE, ZURE ADISKIDEAK  
(Letona'k euskeratua)

## BERRIO-OTXOA'TAR BALENTIN DOATSUA

Azkeneko bost urte oneitan santutasun-giro gozo ta ederrean bizi izan gara Bizkai'ko seme-alabak. Bertoko seme-alaba bi ta Bizkaia'n urte askotan bizi ta santutasun goi-mailetara eldu zan bat DOATSU-BEATO izentaurik altaretan ikustea.

Ona emen DOATSU onein izenak: DOMINGO ITURRATE-1983'ko urriaren 30'n oraingo Aita Santuak Doatsuen lerroan jarri eban. Trinitarioa zan berau, 1901'n Dima'n jaio ta 1927'n Belmonte'n-Cuenca'n il zan.

1984'n iraillaren 30'n, RAFAELA IBARRA ANDREA. Ezkondua zan, ta urteetan alargun bizi izana. Aingeru Zaintzailleena deritxon monjen Bazkuna sortu eban. Bilbo'n 1843'n jaio ta Deustu'n il zan 1900'n.

1985'ko urriaren seian FRANZISKO GARATE'REN GORALPENA. Azpeiti'n, Loiola'ko Iñazio Deunaren jaiotetxe ondoan, 1857'n jaio ta Deustuko Unibersidadean 1888'tik 1927'ra atezain izan zan. Bertantxe iraillaren 9'an il zan.

Orain larogei urte, BALENTIN BERRIO-OTXOA Zorundunen artean jarri eban X'n Pio Aita Santuak. Balentin'egaz batera beste oneik be bai:

Franzisko Gil de Federich (Tortosa'koa),  
Mateo Alonso (Nava del Rey-Valladolid'koa),  
Jazinto Castañeda (Jativa'koa),  
Jeronimo Hermosilla (Santo Domingo de la Calzadako'koa),  
Pedro Almató (San Feliú-Saserra, Barcelona'koa),  
Bizente Liem ta Jose Khang (Tonkin'goak bi oneik).

Ospakizun au albait eraspentsuen ta aundikiroen izan eitean, eleizgizonak, Jose Cadena y Eleta Gotzaiña buru ebela, erri agintariak eta kristau guztiak arreta aundiz ebizan gertakizun zeregiñetan. 1905-garren urteko Domu Santu egunian, Agiri bat agertu zan Gasteiz'ko Aldizkari Nagusi edo Boletín Oficial del Obispado'n. Euskeraz eta erderaz. Onexek izenpetuten dabe Agiri ori ta berba oneiak: Junta zuzentzalliarren izenian: Jose Maria de Urquijo, Presidentia - Luis de Daritagoitia, Secretariyua.

Gogoangarriak doguz Agiri orren lenengo itzak: "Milla zortzireun irurogeta bigarren urtean jakin eban Bizkaiak bere seme batek geure fedearren alde bere bizia emon ebala Tonkin deritxon Txinako errialdian milla zortzireun irurogeta bakarren urteko Zemendiaren lenengo egunian. Ordutik ona bizkaitar eleizatikuak sutsu eta gogoz biar egin dabe gure Ama Eleiza Katolikuak jaso dagian altaretara biargin apala, abade ona, praille zietza ta Obispo aundienetarikua izan zana. Ta berrogei urteko alegiñen ostean, urreratuaz dator eguna -1906'garren urteko

Maiatzaren azkenetara izango da— zeñetan geure Eleizak deklarauko daben bizkaitar argi aren birtute gorengokua, ta ipiñirik modelutzat eta jarraigarriztat bere erritarrai ta Eleiza guztiari aginduko ta irragarriko daben Vaticano-ko Basilicatik Fray Valentin Berrio-Ochoa gloriosuaren beatificaziñoa".

Agiri au argi ta garbi Gasteiz'ko Goterkiko eleiz guztietan irakurri ta iragarri ta inguruetan aldakarritu ondoren, zoli ibilli ziran Erroma'rako joan-etorriako bideak garbitzen.

Joan-etorri ori batzuk itxasoz eta beste batzuk trenez egingo ebela. Bietarikoak iru maillatan banandurik. Iru maillakoai begiratu, saneurria edo prezioa be irutarikoa izango zala.

	Lenengo maillakoak	Bigarrenekoak	Irugarrenekoak
Itxasoz	600 lauerleko	425 lauerleko	175 lauerleko
Trenez	680 lauerleko	480 lauerleko	300 lauerleko

1906'ko otsailaren 28'ko Boletinean zertzelada orieik argitu, ta maiatzaren amabian, bai, pozik be esaten eban Gasteiz'ko Gotzaiñak: "Il onen amalauan urtengo dogu, J. L., Erroma'rako. Egun zoriontsu au eldu jaku. Asmo berezi bi eukazan Gotzaiñak bere biotz barruan: BALENTIN BERRIO-OTXOAREN TA BERE LAGUNEN GORALPENA TA AITA SANTUAREN ONESPENA.

Lenengo au maiatzaren 20'n izan zan. Bigarrena ogei eta zazpian. Pozik joiala diñausku Gotzai agurgarriak: "Aundikiro ta lagun askogaz inguraturik noia -iñoan- Eleizgizon ta erritarrakaz, agintari ta menpekoakaz, erritarrakaz gizonezkoz eta andrazkoz, eukitsuz eta landerrakaz... Guztiok datoz Neugaz siñismen berak eragiñik, itxaropen beraz indarturik, maitasun berak ixioturik".

Zortzi bat egun Erroma'n poz eta zorionez igarorik, etxeratu ziran erromesok.

A Aita Santua, Balentin Berrio-Otxoa ta bere lagunak DOATSUEN maillan jarri ebazan X'n Pio, ezeuki batzuen semea, mutikotan bein baiño geiagotan eskolara joan-etorria ortozik egin ebana; beti pobre bizi ta pobre il zana, orain SAN PIO da.

Noz elduko jaku egi-egiz, zabal-zabal, SAN BALENTIN edo BALENTIN DEUNA esateko eguna?

Eskatu dagigun ta albait lasterren izan daitela.

AGIRRE'TAR L.

# EUSKALERRIA TA AMERIKAK

### BATZAR BAT

Epaillaren 2'an Euzkadi ta España'ko Gotzain misiolarien ardurapean, misiolari-batzar gogoangarria ospatu zan. Zalantza barik Ego-Ameriketan euren sasoiari bate-rako lana egin eben toki bi onetako misiolariak eta ortik dator gaur be alkartzete au egitea.

Beste alde batetik, ez da gauza erreza lurralde aretan Euskalerriko norkiren bategaz zer-ikusirik ez daukan late-ri bat aurkitzea.

### EUSKALDUNAK AMERIKETAN

Azal-azaleko begirakuna bat egitea naiko izango da euskaldun ospetsuak Ameriketan egindako lana ikusteko: Or agertzen da Bolibar, bere aurretiko urrekoak izen ori daroan erritxuan izan ebazana. Onek Ameriketako ainbat aberrirentzat lortu eban askatasuna eta gizon ospetsu ta entzutetsu biurtu zan kondaira-zaleentzat.

Beste gizaundi gomutagarri bat Zumarraga'tar Juan dogu, Mexiko uriko Goi-Gotzaina ta irarkola itxasoz andi-ko aldera eroan ebana.

Nor eta nongoa zan? Durango'ko bizkaitarra eta Ame-riketara joan baiño lenago Euskalerrian misiolari sutsua ta argitsua izana. Ba-dago berak andik eukeraz idatzitako eskutitza be.

Beste gizon aundi bat jatorku gogora. Au josulaguna eta giputza: Antxieta Agurgarria. Zuzen esaten jakon one-ri Brasil'go apostolua. Bere bizitzan bi milloi inditar batea-tu ei ebazan eta eleiza, gaixo-etxe ta ikastolak milla baiño geiago egin. Bein baten, ogei ta lau orduan eten barik bere zeregiñean ekin ondoren, nekatuta, gizon bik besoai eusten eutsen berak bateoko berbak esaten ebazan artean.

Eta nork ez dau ezagutzen Durango'koa izan zan Zaba-la, Montebideo'ren iraslea? Ni Deustu'n bizi nintzala, orain amar urte, gizon sendokote bat ezagutu neban, Zabala abizenekoa. Onek esan eustan bere gaztaroan iku-bilkalari zala eta abizena'k berak bururatu leiken lez, Montebideo'ren iraslea izan zanaren senide zala. Nik esan neustan: Baiña egia esaten ete daustazu gero? Bai —eran-tzun eustan berak— eta ori orrelan dala jakin dagizun ona emen argibide bat: Nire alabeak Durango'ko Udaletxetik bizi-saria artzen dau, orain sari txikia izan arren ezaugarri lez naikoa. Durango'ko Udal-Batzak erabagita eukan Zabala'ren ondorengoai bizi-sari ori emon bear jakela eta orregaitik eskuratzen eban. Nik sinistu egin neustan esaten eustana, baiña ez neban astirik izan Durango'ko Udaletxe-ra joan eta ori egia zala baieztatzeko.

Txile'ko Araukana ibarrean izandako gudaren barriak olerkiz idatzi ebazan Ertzilla, jaio Madrid'en jaio zan, bai-ña bere gurasoak ara ostera bat egin-bearra izan ebelako. Izatez Bermeo'tarra zan, bai bera eta bai bere gurasoak be.

### BARRI ONA ZABALTZEN

Ameriketara joan ziran euskaldunak geienak Kristo Salbatzailearen barria ara eroaten joan ziran eta ango biz-tanleak kristiñau, katoliku, izatea lortu eben.

Mundu guztiko katolikuetatik latindun Ameriketakoak ia erdiak dira eta 2.000n. urterako Eleiza guztian erdiak ego-ameriketarren artean zenbatu al izango doguz.

Baiña jazokizun gogoangarri orrek gure aldetik erantzun-bear itzala dauko! II Jon Paul Aita Santuak esan dauanez, "barriztu ta geiagotu egin bear da gure eskintza, zati on bat Euskalerraren bultzadaren indarra dana, sendotu daiten".

Lurralde areik aurkitzea ta bertan Barri Ona zabaltzea egiten asi zanetik 500 urte beteko dira laster eta 500 urte oneitan fedea ta jakintza alkar-banatzeko lana egin da, baiña lan ori sendotu, ugaritu ta bideratu egin bear da.

Gure egunetan Ameriketan jokabide berezi ta barri bat sortu da, Batikano'ko II Batzar Nagusiak eta Medellin eta Puebla'n egindako batzarrak emondako argibideak onar-tuta eta ondoren lez ango Eleizeak gaztetasunaren bizi-indar ukatu-eziña lortu dau.

Gogora datort oraintsu irakurria: Bizkai'ko Eleiz-Barrutiak bakarrik Ego-Ameriketan eta Afrika'n 900 misiolari gizonezko dauzala. Eta orain latindun Amerike-tako lurretan gagozan ezkerre, ba-daukagu itxaropena Ebanjelioaren indar barriztuak ango sinismenaren aberas-tasuna berbiztuko daula, Amerika barri bat egiteko, bere goi-dei edo bokaziñoari erantzun egokia emongo dautson Amerika, Askatasunaren eta anaitasunaren, zuzentasunaren eta bakearen eredu izango dan Amerika Jesukristo'gan gizarteagaz zintzoa izango dana.

Txirokeriz neketurik, ekonomi menpekerian minduta, okerkeriak zapalduta bizi diran erri areik Ebanjelioaren itxaropen-iturria bear dabe eta ori lortzeko Euskalerraren laguntza bear-bearrekoa da.

LETONA'K



**AGINDU**

Gizonik geienak daroe euren barnean agindu-naia. Ezjakiñak be bai. Askoren ametsa agintzea da. Agintzeko doai berezia euki bear da. Danak ez dira agintzeko sortuak.

Doairik gabeak zuzentzen daben, errien erruki.

Agintzeko ez da naiko jakintza eukitea, zurra ta argia izatea. Doai bereziak bear dira. Zurtauna, eroapena, adorea, nortasuna ta politika bear dira. Ta erria maite izan. Eta ondo ezagutu.

Alderdi guztien ganetik egon, erria ondo zuzentzeko. Makaltasunik sekula ez agertu. Barruko ta kanpoko ekaitzai arpegia agertu. Ta batez be norberaren burua zuzentzen jakin.

Onela iñoan Massinger idazleak: "Besteak zuzendu bear dauzanak lenengo bere burua zuzendu bear dau".

Ta Victor Hugok: "gaizki agintzen dauan gobernuaren ta ixillean onartzen dauan erriaren artean lotsagarritzko alkartasuna dago".

Norberari agintzea galeraztea gatxago da besteari agintzea baiño.—"Iñoan La Rochefiukauld'ek."

Legeen izenean ankerkeriz agintzen dauan gobernu ta txarrena. (Montesquieu.)

"Agintzen dabenak izarrak bezala dira: dizdiz dagie baiña sekula ez dabe atsedenik. (Bakon.)

Agintzen dauanak menpekoak ondo zuzenduak izateko bidean jartzen dauan jakintza bear dau lenen-lenen. (Plutarko.)

Besteak zuzentzen baiño zeure burua zuzentzen ikasi egizu lenago. (Solon.)


Gitxik dabe uriak eta erreñu andiak zuzentzeko deia; bakoitzak baiña bere sendia ta etxea jakinduriz zuzendubearra dau. (Plutarko.)

Gobernuaren elburu bakarra menpekoen ona da. (Agustin doneak.)

Gobernuak ez dauko bere euspina indarrean, gobernu bera da indarra. Menpekoen baietzean eta zuzen izatean da bere euspina. (Chesterton.)

Erri bat ondo zuzentzeko agintariak menpekoak lez zaindu bear dabez legeak. (Pitako.)

**GOIRIA**



**ARGINTXONA TA ONAINDIA'tar Mateo aita (Pasiotarra)**

- Jorraillaren (aprilaren) 19'an joan jaku.
- Aspalditxuan izan dogu ZER'en idazle ta laguntzaille.
- Eriotz-miña sortu da ba ZER'en sendian.
- Gure esker ona Aita Mateo'ri eta guk emon ezin dogun saria, Saritzaille Onak emon dagiola.
- Agur eta egun aundira arte.

**IDAZKOLAKOAK**

**AITA MATAI ARGINTXONA**

- Mendata'n jaio zan, orain 78 urte.
- Amairu neba-arreba izan ziran, euren artetik 4 lekaideak (iru Pasiotarrak eta bat Prantzeskarra; arrebak: lekaimeak bi).
- Gabiria'n (Irakasle be izan zan); Irun'en (Nagusi); Bogota'n; Pto. Riko'n (Pasiotarren-etxe sortzaille).
- Deustu'n 30 azkeneko urteetan.
- Ainbeste urtetan MIXIOAK emoten Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n; batez be Bizkai'ko euskaldun errietan.
- Jaungoikoa ta Lege-Zarra'ren jarraitzallea; euskaltzale eta Abertzale zintzo ta jatorra.
- Olerkaria be ona izan zan. "Zer"en batez be agertzen ziran bere olerki argi, sentikorak eta ulert-errezak.
- Bizkaiera, erri-euskera erabilten eban beti, ta Aberria ta euskera, Jainkoaren ondoren, geien maitatzen ebanak.
- Lan asko ta oporraldi gitxi bere bizitzan.
- Deustu'ko Ikastola'ko umeak (irakasle izan zan urte askotan) eskiñi eutsoen lan batean olan idatzi eben: "EZAGUTZEN DOGUN PERTSONARIK ONENARRI".

**EUSKALDUNAK BARREKA****MOZKORTUTA OTE?**

Pototok Oto'ri:

- Bart, Oto, zearo mozkortuta itzan?
- Ni, mozkortuta...? Iñundik ere ez!
- Bai, gizona.
- Ezetz!
- Ez al aiz gogoratzen nola jeiki eta andre bateri eskeiñi iokan ire eserlekua?
- Nungo munduan bizi aiz? Ori al dek iretzat mozkorraren ezaugarri bat?
- Nola dan...
- Orrek esan nai dik ni gizon prestu bat naizela.
- I, prestua? Preskua, bai beintzat.
- Eta, gaiñera, emakumeari begirunea diotela...
- Ago ixilik, mutil.
- Zergaitik ixildu bear dut
- Gizona, gizona, autobusean i eta ni eta txoferra; besterik ez bait zan iñor...

**AURRA OTO'REN ETXEAN**

Aurra zuten etxean lau illebetekoa eta Agustinak andre Joxepa'ri:

- Zuek guraso onak zerate.
- Bai, orixe.
- Eta gauerdian aurra negarrez asten danean zein jekitzen zerate lenago, zu ala senarra.
- Ez bat eta ez beste.
- Zein, ba?
- Auzoko guztiak.

**OTO'REN ORTZAK**

Pototok Oto'ri:

- Eraneun etxera nekez jo genduan eta i, ire ustez, ez itzan batere mozkortu; baiña, andra Joxepak sekula zaratak atera omen zitun...
- Ez ainbestekoak; gaiñera aurreko bi ortzak kendu bearrezkoak nituan.

**GARAJEAN**

Otok garagera automobilla eraman baiño lenago, gizon zuurra danez, prezioa eskatzen du:

- Zenbat kostatuko zait berebillaren reparazioa?
- Lanaren neurrian.
- Zer neurri?
- Lanarena. Zureak zer lan du?
- Ez dakit.
- Orduan, ogei milla pezta.

**TXILIBRISTO ETA ORDUA**

Txilibristo Mexiko aldetik ibillia degu eta andik bi gauza aukeratu ditugu: kapel aundi-aundi bat eta lanerako alperra.

Oto inguratu zitzaionean, siesta ederra egiten zegoan, lurrean eserita eta egal-aundidun kapelaren itzalpean.

- Aizu, Txilibristo, esango aldidazu zer ordu dan?
- Besteak, lurretik mogitzeke, aldameneko astoari buz-tana jaso eta onela diotza:
- Bederatziak eta ogeita bi minutu.
- Aurrerago joanda, Otok eliztorreko ordularia ikusten du:
- Arraioa...! Ziur-ziur asmatu dik ordua iñungo errurik gabe. Astoaren ipurdiko zulotik nola asmatu ote du ordua ain xuxen...!
- Joanda berriro Txilibristo'arengana:
- Nola asmatu duzu ordua astoaren isatsa jasota...?
- Orrela eliztorreko ordularia ikusten dudalako.

**OTOTXO KOSMONAUTA**

Zortzigarren ikastaroan dabil Ototxo eta etorkizunera-ko prestatzen asi bear. Joan da aita irakaslearengana:

- Nere mutilla azkarra da, oso bizkorra; zer izango ote da egunen batean...?
- Kosmonauta.
- Kosmonauta, or goietan ibiltzekoa...?
- Bai, kosmonauta.
- Oi, zein eder...! Eta, zergaitik ori...?
- Ara: ikasgaia esplikatzen dudanean, orduan illargian egoten da; galdetzen diodanean, berriz, lañoetatik errotzen.

**ARRINDA'TAR ANES****KOPIN AUSIA**

Aserre ugelen zapladakin zabilkidaz astindu gurarik. Zergatik, Jauna, dozu aldegin gure bion maite-egonetik?

Beti izan dot Zure alboan amodio lurrunen gozoa. Zergatik, ba gaur, nire lepoan ain gogorra zigor-erasoa?

Atzo, bai Jauna, Zuk baninduzun Zure begien kilikilia. Zergatik, baña, zergatik egun, dizdira guztien itzalia?

Len, egunek luzea altzoka; gaur, zer Jauna? Sastada lakarrak; aize latzak ditut azur-joka, gauak dakardaz izu-aztarrak.

Il bion arteko maitemiña? Sakonetik darizu aserre. Ba dakit zer dan bizien miña, amets larrosak dituna erre.

Orain ba dakit nik zer dan poza. Zur galtzea dakarren itunak darakust nire sentzunik eza. Aro ememduek matzu onenak.

## EUSKERA ABERASTU

## ESAERA ZARRAK

Berandu jagiten bazara, eguneko lanak atzera.  
 Bera joteko makilla, berak emon.  
 Besteen akatsak ikusteko, ez da bear betaurrekorik.  
 Besterik ezean, ogi gogorra be ogi (A falta de pan buenas son tortas).  
 Beti jaten eta beti gose = Jose beti gose.  
 Beti santu gisan, arekin kontu izan.  
 Biar be eguna zabalduko dau (Esaten da lana arin eta txarto egiten danean).  
 Bi begi baiño obe, bi beso (Lagundu barik begira dagoenari).  
 Bide zidorra, bide gogorra (No hay atajo sin trabajo).  
 Bi euki eta lau gastatu, laster lapurra.  
 Bi ezker, iru seguru (No hay dos sin tres).  
 Bildu negarrez, gastatu barrez.  
 Biotz betea agotik dario (De la abundancia del corazón habla la boca).  
 Biraua etxean zoritxarra atean.

Bi uretako arraiña (Bi aurpegi dituenari esaten jako).  
 Bizarrak ez dau gizon egiten (El hábito no hace al monje).  
 Burua lenago nekatu bear da, besoak baiño (Gauzak ondo pentsatuta egin bear dira).  
 Busti nai ez dauena, ez uretan sartu.  
 Berbak andiak, baiña egite txikiak (Hablar mucho, pero hacer poco).  
 Nori berea da zuzenbidea (A cada uno lo suyo, es la justicia).  
 Txapelik andienak ez dau buru utsik beteten.  
 Santa Barbara, zure bearrean gara (Esaten da ekaitza datorrenean).  
 Berakatz atala baiño zintzoago (Oso zintzoa dala esateko).  
 Beiñola ala, orain onela, biar ez dakit nola.  
 Alperra beti berandu.  
 Jainkoa ez da aazkor, bai berankor (No tiene prisa).  
 Abadeek azken itza bereá  
 Entzun eta isil, baiezkoa biribil (El que calla otorga).

INAKI GOIKOETXEA

## ZER'EN SENDIKOAI OARRA

“Zer” gure aldizkariaren 96n. zenbakia dogu oraingo au. Laster eungarren zenbakira eltzen gara ba, eta zenbaki biribil ori bide dala ospakizun bat egitea gura genduke.

Orretarako ekintza bi artzen doguz. Lenengo, 100n. zenbaki ori berezi lez argitaratu, orri geiagogaz eta idaz-lanak ugariago dauzala. Orri orreitan agertuko dogu baita orain-arte zenbat idazlek idatzi daben aldizkari onetan, euren izenak eta lanen kopurua agertuz.

Zenbaki berezi orretarako lanak gertatzeko deia egiten dautsegu bizkaieraz idazten daben idazle guztiai eta gure eskerrik beroena aurretiaz agertzen dautsegu.

Zenbaki ori agertzen dan inguruan, uda-aldian, batzar bat egingo dogu bazkari ta guzti eta batzar-

bazkari orretara deituta geratzen dira gure idazle guztiak. Lenago be egin genduan olako batzar bat eta bakoitxak bere bazkaria ordainduta izan zan, baiña oraingo onetan EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ordainduko dau bazkari ori, esker onaren ezaugarri lez.

Batzarrean, bazkal-aurrean, gure jokabidea ta gure lanak aztertuko doguz eta jokabide barriak artu. Guztioi entzuteko gogoz eta pozetan gagoz.

Sasoiz agertuko da batzarrera deia. Bitartean zuek idatzi zenbaki berezi orretarako lana, orrialde bi edo laukoa izan daitela al dala.

Gure agurrik beroena guztioi.

EUSKERAZALEAK  
 “ZER'EN ZUZENDARITZA”


# Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoiari, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,  
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,  
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,  
batez be, emoneko berba lez daroan  
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.  
Itxasoaren oldarra gelditzen,  
gizonaren neurribako  
alegiña:

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA

**Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.**